Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Unibasq-ek auditatu egingo du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen kalitate sistema, uztailaren 22an

2014/07/21

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ordezkarien bisita jasoko du Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Uztailaren 22an egingo den ikuskaritza saioan aztertuko da fakultatearen kalitate sistema osoa. Auditoria AUDIT programaren barruan egiten da.

Lau lagunek osatuko dute Eskoriatzako campusera hurbilduko den begiraleen taldea:

- Aitor Marañon Deustuko Unibertsitateako ikaslea.
- Eva Fernandez de Labastida Unibasq-eko arduraduna.
- Jose Miguel San Vicente irakaslea.
- Jose Antonio Calvo auditorea.

Auditoria egun osoko saioa izango da: 08:30etan hasi eta 18:30etan bukatu (Egitarau osoa hemen dago ikusgai). Berezitasun moduan esan, lehenengo aldiz, era horretako auditoria bat euskaraz egingo dutela.

Halako ekitaldietan ohikoa den moduan, Eskoriatzako campusean egingo diren saioak publikoak izango dira eta irekiak interesa duten guztientzat.

Irailean jasoko dira auditoriaren emaitzak.

Lau lagunek osatuko dute Unibasq-en ikuskarien taldea.